

Poemak: Leire Bilbao
Irudiak: Maite Mutuberria

Mila gau, 6
ISBN: 978-84-7681-963-0
Urtea: 2016 / 80 or.
17x24 cm barnea koloreetan, azal gogorrean
koadernatua

TXITXARRO harroak
eta **ATUN** tuntunak
itsas hondoan
egin zuten tupust,
isatsez isats,
hegalez hegal,
muturrez mutur [...]



Umeek literaturarekin duten lehen kontakua poesiarekin dela ahazten zaigu sarritan. Txiki txikitako kanta, aho-korapilo eta hitz asmaketekin poesia sortzen dute berez eta natural. Irakurtzen hasten direnean, ordea, ipuin narratiboak eskaintzen dizkiegu eta poesia bazter batera utzi. Horrenbestez, urteekin poesiara hurbiltzen direnean arrotza egiten zaie, zaila eta konplikatu. Katebegia hautsi ez dadin, eta era natural batean poesia lantzen jarrai dezaten asmoarekin sortu dira liburu hauek. Poesiak irudi berriak asmatzeko balio duelako, umeen irudimenari mugarik jarri gabe. Poesiak hizkuntza garatzeko eta berritzeko balio duelako. Erritmoa eta errima lantzeko ere baliagarriak dira poemak. Begietatik ez ezik, belarritik irakurtzen ikasi eta kantuetara hurbilpen bat erraztuz.

Bi liburu hauetan, animalien aitzakian sortutako poema eta ipuin poetiko laburrak aurkituko dituzu. Xomorropoemekin poesiara hurbilketa bat egin eta Piztipoemekin lanketa horretan segitzeko.

Xomorropoemak

15,00 €



Ariketa ezberdinak planteatzeko ere balio dute; hala nola, ahozgora irakurri, errima lantzeko, animalien sailkapenak egin, marrazketa trebatu eta animalien aitzakian bakardadea, maitasuna edo bizitzaren gainean hausnarketak egiteko.



Gaiak: Poema eta narrazio poetiko laburrak animalia ezberdinen aitzakian.

Gomendatutako adina: 6-14 urte bitartekoentzat. Xomorropoemekin hasi eta Piztipoemekin jarraitzeko.

Alderdi nabarmenak: Testuek errima eta erritmoa lantzeko balio dute. Baita kantatzeko ere. Umeak poesiarekin kontaktuan jarraitzeko. Ilustrazio poetikoak ditu. Jolas egiteko eta marrazteko proposak. Baita ere umeen irudimena garatzeko, hain maite dituzten ezinezko animaliak sortzeko baliagarriak.



Poemak, xomorroak bezala, ustekabean agertzen dira. Eta ziztatu egiten dute. Eta kosk. Eta azalean koskor txikiak utzi, egunetan joaten ez direnak.

Poema batzuk hegan egiten dute. Beste batzuk igeri. Badira narralean doazenak. Baita orria zabaldu eta orro egiten dutenak ere.

Poema batzuk beltzak dira. Badaude berdeak, gorriak edo beste kolore batzuetakoak. Poema batzuk lau hanka dituzte, bestetaz sei, zortzi edota ehun.

Poemak, azken finean, xomorroak bezalakoak baitira. Eta kontuz, batzuetan xomorro horiek piztia bihurtzen direlako.



LEIRE BILBAO (*Ondarroa, 1978*) Haur literaturan ibilbidea oparora izateaz gain, helduentzako bi poema liburu ditu *Ezkatak* (Susa, 2006) eta *Scanner* (Susa, 2011). Poema horietako batzuk antologia ezberdinetan jaso eta hainbat hizkuntzatarara itzuliak izan dira. Kantu ere bihurtu dituzte zenbait musika-erakunde. Hauek argitaratutako liburu batzuk: *Nijolè Miliauskaitè* (Munduko poesia kaierak, 2016); *DominiStripu jauna* (Elkar, 2014); *Gerrak ez du izenik* (Pamiela, 2013 Etxepare saria); *Enlibat dut bihotzean* (Elkar, 2013); *Armairubarruan ipuinak irakurtzen zituen neska* (Erein, 2010).



MAITE MUTUBERRIA (*Eltzaburu, 1985*) Ikus-Entzuzko Komunikazioan Lizentziatua eta Ilustrazioan goi-mailako teknikaria. Sari hauek jaso ditu: 2014ko Lazarillo Saria, 2014ko Peru Abarka Saria, 2013ko Etxepare Saria. Publizitate, Hezkuntza eta Literatur lanak ilustratzen ditu. Hauek argitaratutako liburu batzuk: *Kixotenean* (Elkar, 2016); *Kantuz 1965-2015* (Elkar, 2015); *Apaiz gerrillariaren ezkutalekua* (Elkar, 2015); *Zerua Berun* (Ibaizabal, 2014); *Bizikleta lapurtu didate* (Ibaizabal, 2014); *Cuento de Babia y Luna* (2014); *Gerrak ez du izenik* (Pamiela, 2013).

